

KULTURA ETA FEDEA

Paulo Agirrebaltzategi

Fedea eta Kultura da neri agindu didaten gaia, eta zuen aurrean azaldu nahi dudana. Ez nuke, ordea, gogoeta abstrakturik egin nahi, bi kontzeturen arteko gorabeherak aztertuz edo. Gure Euskal Herriko egoera konkretuan eta beronen agerpide izan den Euskal Unibertsitate honen giro bizian aztertu nahi dut fedekulturen harremana. Hala ere ezin izango dut soziologiaren azterketa egin —ni ez bait naiz soziologoa—; filosofi-teologiazkoak izanen dira nere gogoeta hauk.

Kulturaren eta fedearen larria

Euskaldun : fededun izan da garai batetako euskaltzale askoren eta fededun askoren solgana. Gaur, ordea, slogan horrek susmo txarrak sorrarazten ditu gure artean. Eta ez gabiltza oker, nere ustez: izan ere, berdinketa edo ekuazio horren ideologikeria gora-behera, ba ote dago euskaldunik eta ba ote dago fededunik gure lurralde honetan? Ez ote gara gaur, bikote horretako bata edo bestea edo berdinketa bera ukatu ordez, hirurak ukatu beharrean? Ez naiz ari kristau fedearen eta Elizaren heriotza aldarrikatu dutenez, alde batetik, edo euskeraren eta Euskal Herriaren heriotza aldarrikatu dutenez, bestetik, ez... Euskal Herriaren kinka larria aztertzen dutenez ari naiz: eta horixe egin du, egin ere, Unibertsitate honek.

Nere galdera, Unibertsitate honen buruan, hauxe da: gure kinka hain larria izanik, ez ote genukeen argi eta garbi aitortu behar, gaurregun ez dugula euskal kulturarik ez Euskal Herririk... Euskal Herririk gabe, berriz, ez dago gizaki euskaldunik; eta Euskal Kulturarik gabe ez dago euskal fededunik.

(1) IDAZLAN hau 1973-ko Udako EUSKAL Unibertsitatean hitzaldi bezala emana da. Orduko eta hango giroan eta eran utzi dut.

Heriotzarainoko kultur eta herri krisia dugula guk eta gure gizarte honek ez dut uste zaila denik ikusten. Unibertsitate hau eta hemen esan diren zenbait gauza, egoera horren garrasiak direla uste dut.

Eta fedea? Kristau fedea galbidetik doala Euskal Herrian ukatzerik ez dago. Horixe ikusi dugu argi aste honetan, Euskal Herriaren fede egoerari buruz egin den zenbait mintegitan. Ikusia dugu, baita ere, kristau fedearen krisialdi honek baduela sustrairik gure Herri eta kultur krisian. Kristau fede krisia barne-barnean giza fede krisia da.

Kultur krisia eta fede krisia gure Herriaren herritasun krisira eta gure gizatasun krisira biltzen dira. Hizlari bati entzuna diogu: "Kulturak du gizona sortzen, gizontzen, gizonagotzen"; eta fedeari buruzko mintegi batetan entzuna dugu ere: "Fedea, gizakiak bere izateari ematen dion zentzua da". Ez naiz hemen kulturaren eta fedearen kontzetu hauk aztertzen hasiko, baina biak gizakira biltzen dira. Kultur krisiak eta fede krisiak gizakia bera jotzen dute; eta barne-barnean krisi bat bera dira...

Egun hauetan entzun ditugun hitzen batzu gogoratu nahi ditut: "Erliziozkoa eta fedezkoa da eztabaidatzen ari den politikazko prolema funtsezko hori"; "kristau fedearen hutsunea betetzera dator marxismoa Herrian"; "salbazio mailan jartzen ditugu gure ideia eta baieztapenak"... Guzi hauk entzun ditugu, eta horiek ere ikusarazten digute gure politikazko, kulturazko, gizartezko eta fedezko krisiak herri krisira eta giza krisira garamatzala.

Fedea, Kulturaren oinharria eta sakona

Arazo hau argitzen saiatu nahi nuke hitzaldi honetan: hots, fedearen eta kulturaren harremana; eta hain zuzen, gure Herriaren kultur eta fede krisialdi honetan; gaurko euskal Herriaren giroan jarriz, halegia.

Hamabostaldi hau, kultur-fedeen krisiaren eta heriotzaldiaren ilunpeko garrasia izan bada ere, —nolabait Euskal Herriaren eta euskal kulturaren ukapenetik sorturiko garrasia—, bizi behararen beharrez geure Herriaren eta geure kulturaren baieztapena izan da; paradoxaren indarrez, euskal kulturaren agerpidea izan da. Eta

Herriaren kultura Unibertsitatean agortzen ez baldin bada ere, euskal kultura bizten, finkatzen eta indartzen saiatu da gure hau, alor batzu bereziki landuz.

Kulturaldi honen azkenean jarri dute nere hitzaldi hau. Nik ez dakit horretan inolako asmo ezkuturik izan dutenik Unibertsitatearen antolatzaileek. Dena dela, horrexek emango dit, une honetan, nere gogabide eta pentsabidearen eta hizpidearen ardatza.

Azkena izadiarekiko *kontzetua* da aurrenik, *kontzetu* kosmologikoa. Denbora eta espazioa baldin badira izadiaren elementuak eta neurriak, *azkena* da denboraren eta espazioaren une jakin batzuetan edo une guzietan beste denen ondoren datorrena. *Azkena* hitza da, beraz, gizakiak, kulturaren bidez, izadia neurtzeko eta mugatzeko erabiltzen dituen *kontzetuetariko* bat.

Baina *azkena* hitzak badu beste baliorik. Hau da, kultura ez da izadia neurtzea eta mugatzea; izadia gizatar bihurtzea da kultura; eta honela kontzetu kosmologikoak, hau da, berez izadiari dagozkionak, gizakiarekiko *sinbolu* bihurtzen dira. Eta orduan, *azkena* hitza ez da nolabait izadia bera taxutzeko, eratzeko eta moldatzeko kontzetua; eta bai gizakiaren egoera edo situazio bat adierazteko *sinboloa*: gizakiari dagokio orduan zuzen-zuzenean *azkena* hitz hori, eta ez izadiari. Gizakiak espazioan beregandik urrutien dadukana eta denboran aurreko guzien ondoren lortuko duena adierazteko sinbolua da *azkena* hitza.

Lau ikustalde edo dimentsio baditu, ordea, gizakiak denborari eta espazioari buruz: aurrea, atzea, behea, goia. Eta dimentsio bakoitzean du gizonak bere *azkena*; baina hitz hau gizakiari dagokion sinbolua denez, zentzu eta balio diferentea du lau dimentsio horietan:

a) Gizonaren *aurrekaldearen* azkena, oski, zeruertz edo horizontearen irudiaren bidez agertzen da, eta aurrean dugun bide baten *helburua* adierazten du. Helburua da *azkena* hitzaren esanahia eta balioa.

b) Gizonaren *atzekaldearen* azkena, trenari erantsitako ba-goia irudiaren bidez azal genezake; eta, hain zuzen ere, *eraskina* adierazten du, eta eraskinaren balioa du.

d) Gizonaren *behekaldearen* azkena, arbolaren sustraiaren edo hondoaren irudiaren bidez azal genezake. Eta honela, *azkena*

hitzak *sakonaren eta oinharrikoaren* esanahia eta balioa hartzen du.

e) Gizonaren *goikaldearen* azkena, mendi gailurraren irudia- ren bidez azal genezake; eta gizakiaren ametsa eta ideiala adierazten du.

Kulturaren *azkena* baldin bada fedea (kulturaldi honen azkena fedearen gaia den bezala), erabat antropologikoa, gizatarra du bere esanahia *azkena* hitz horrek, kultura eta fedea gizatarrak diren bezelaxe. Eta baharbada lau esanahi eta balio horietan har daiteke fedearen azkentasuna kulturari buruz: kulturaren *helburua* izan daiteke fedea (hauxe zen gutxi gora-behera Erdi Aroko pentsakera); fedea izan daiteke kulturaren *eraskina* (hona hemen, arrazoinalisten eritzia); kulturaren *ametsa eta ideiala* izan daiteke fedea (hauxe da, beharbada, zerura begira bizi den kristau askoren ikuskera); fedea izan daiteke kulturaren *sakona eta oinharria*, kulturaren *hondoa*. Eta guzti hori da, kulturaren helburua delarik. Horregatik daude hain loturik fedea eta itzaropena edo esperantza: fedeak kulturaren oinharria, hondoa ematen badu, esperantzak ematen dio fedeari eta kulturari beroien helburua, aurrera begiratzea.

Nik ez dakit Unibertsitatearen antolatzaileek kulturaldi honen sakona eta hondoa bezala ikusi duten oraingo gai hau (ala eraskin, ala helburu ala amets bezala ikusi duten); baina nere ustez, kulturaren sakona, oinharria eta hondoa bezala ikusi behar dugu fedea.

Kultura eta gizona

Kultura herri baten bizitza eratu eta moldatzeko sinbolu sistema bat da. Kultura ez da museo (San Telmo edo Bilboko etnologi museo). Hor bilduta dauden ondar guziak kulturazkoak badira, Herriaren bizi moldearen sinboluak direlako dira sinbolu. Artea, nahiz gizarte erakundeak, nahiz lanbideak, jolas moduak eta hizkuntza bereziki... ohiturak eta jendearen burubidea: guzti horiek Herri baten sinbolu sistema osatzen dute. Sinbolu horietan eta horien bidez bizi da Herria herri bezala, eta sinbolu sistema horretara sarturik mintzatzen da gizona bere herrikideekin eta osatzen du bere burua eta betetzen bere bizitza.

Honela ez dut kultura definitu nahi, horren mila definizio-

ren artean besteren bat jartzearen edo. Baina kulturaren ikuskera horren barnean, herriaren bizitza eratu eta moldatzeko sinbolu sistema den kulturaren barnean, ikusiko dugu kulturaren adiera *gizatarra*.

Kultura gizonaren *askabidea* da. Harria eta aberea inguruko izakiei lotuta daude, ez eboluziobide determinatu batek sortuak direlako eta eboluzioaren legepean daudelako bakarrik, eta bai inguruko izakiak kanpoko gertatzen zaizkielako ere. Gizonak, ordea, lanaren bidez —gizonak bakarrik egiten du benetako lana— bereganatu egiten ditu gauza eta izaki guztiak eta sinboluen bidez gizatar bihurtzen. Gizonaren mundua ez da izaki multzo bat, gizona bera irentsita legokeen multzoa, hategia; inguruko mundua landu, eratu, antolatu egiten du gizonak, lanaren eta sinboluen bidez, hau da, kulturaren bidez. Multzoan multzoko izan beharrean, norberegandik begiratzen dio gizonak munduari eta norbere ingurua biltzen du mundu hori.

Horixe da, hain zuzen ere, gizona *norbait* izatea, *nor* edo *pertsona* izatea, *zerbait*, *zer* edo *gauza* direnen aurrean. Kultura askabidea delarik, nortasun bidea da funtsean. Gizonaren erdigunea ez dago munduko multzo horretan, norbere barnean baizik. Eta kulturaren bidez gizonak, norbere erdigunetik kanpora jo ezezik (eta ez alderantziz), norbere erdigune eta nortasunaren erdigune hori finkatzen ari da: personalizazio bidea da kultura. Norbere erdigunea aurkitzeko, finkatzeko eta zabalitzeko bidea da kultura.

Gizona eta fedea

Hala ere, norbere erdigunea, muina, pertsonatasuna, zentrua, kulturaren bidez inguruko mundua eskuratuz, landuz, eratuz, taxutuz eta antolatuz, gizatartuz, libratzen badu ere, beti gelditzen da gizona inguruko izakiei kondizionatuta. Norbere buruaren finkabidea inguruko munduari begira duelarik, mundu horren nahaspilan, multzoan erortzeko arriskuan dago gizona. Horregatik kulturbidearen funtsean eta oinharrian, absolutu baten beharrean dago gizona, bere kulturbidea, hau da, bere askabidea eta nortasun bidea, benetan finkatzeko eta segurtatzeko.

Absolutu horri gizonak dion atxekipena eta eraspina da *fede*. Fedearen bidez, bere kulturbidearen oinharria eta sakonera

jotzen du gizonak, bere kulturbidearen azkenera; hala ere, fedea nolabait atxekitzen edo heltzen zaion absolutu hori ez da kultura mailako zerbait, kulturbidearen azken urratsa edo; kulturaren zeruertzetik harutza dago absolutua; haraindikoa, trazendentea da. Gizonak nortasunaren eta kulturbidearen sustraia eta oinharria norbere erdigunea duelarik, erdigune horretantxe gertatzen da kulturaren eta fedearen harreman mina. Eta fede horretxek ematen dio kulturari barren-barreneko, azken-azkeneko oinharria, finkabidea eta segurtasuna; ez kulturari kanpotik txertaturiko edo erantsiriko zerbait balitz bezala, kulturbidean gizonari bere bizitzaren eta kulturgintzaren muina eta iturri etengabea ematen diona bezala baizik. Bestalde, zeruertzetik harutza dagoenari, haraindikoari lotzen zaiolarik gizona, beronen kulturbidearen esperantza gertatzen da fedea: gizonak bere kulturgintzan sortua ez izanik, kulturgintza honen eragilea, erakarlea, helburua gertatzen da fedea eta hau atxeki nahi zaion absolutua. Zeruertzetik harutza dagoen hori ez da kulturbide honen ondoren emango zaiguna eta kulturgintzarekin zerikusirik ez lukeena; horregatik, fedea kulturgintza osoan barheraturiko esperantza beharrezkoa gertatzen da.

Honela giza fedea giza kultura osoa mamitzen du. Ez da kulturgintzari *eransten* zaion zerbait; baina ez da ere kulturgintza eta kultura *irensten* duen zerbait, gizonaren gizatasuna eta herriaren herritasuna fede bihurtuz edo. Edozein ideologiak duen arriskua eta joera hauxe da, hain zuzen ere: kultura fede bihurtzea, hategia. Eta atzo Jose Azurmendik esaten zigan bezala, gaurko Euskal Herrian, bai kristauek eta bai kristautasuna ukatzen dutenek, *geure* pentsabidea, *geure* politikabidea, *geure* ideologia, hitz batez, *geure* euskal Kultura eta *geure* Euskal Herria fede bihurtzen ditugu; eta ez da harritzekoa, gure Herri eta kultur egoera hil-ala-bizikoa bait da, eta gure edozein irtenbide *salbamen* arazo bihurtzen zaigu, fede arazo, eta ez ideologi, politik, kultur arazo.

Euskal Herriaren Krisi osoa

Kultura da gizonaren eta Herriaren sinbolu sistema: eta kulturazko sinboluak ditu gizakiak bere fedea adierazteko bidea. Kulturgintzan, kultur bizitzan, gizona eta Herria bere gizan fedea azaltzen ari dira. Giza fedea mintzaira bat behar du, eta mintzaira

hori ematen diote kulturazko sinboluek. Kulturaren bidez agertzen eta esaten den giza fedea erlijioa da: erlijioa, fedea adierazteko kulturazko sinbolu sistema bat da, beraz.

Horregatik kulturarik gabeko gizona eta kulturarik gabeko Herria federik gabeko gizona eta Herria dira, edo fedea adierazteko, esateko biderik eta tresnarik gabeko gizona eta Herria. Mintzabiderik gabeko fedea, ordea, ez da giza fedea. Hona hemen, nola dauden hain lotuta gaurko Euskal Herriaren kultur eta herri krisia; batetik, eta Euskal Herriaren fede krisia, bestetik. Heriotzaren ilunpetan, kulturarik gabe, Herririk gabe, federik gabe, gizatasunik gabe, galduta gabiltzan gizonak eta Herria gara.

Beraz, kultur prolema, Herri prolema, politika eta ideologi prolema, fede prolema bihurtu zaizkigu; eta horixe da Herri batek izan dezakeen krisialdirik haundiena, gizonaren eta Herriaren sustraiak eta oinharriak ikararazten bait ditu. Kulturarik ez dugun bitartean ez dugu fede biderik euskaldunok.

Ondoria

Guzti hau honela bada, nola eritzi behar diogu, haseran aipatu dugun "euskaldun = fededun" esaera honi? Nere ustez, integrismoaren ahotan onarezineko esanahia daduka; humanismoaren ahotan, ordea, esanahi egiazkoa eta sakona du.

Integrismoaren ahotan, Euskal kulturaren eta giza fedearen, bien ukapena adierazten du esaera horrek; kristautasuna, kristau ideologia fede bihurtzen bait du, eta hain zuzen ere, euskal kulturaren eta euskaldunaren fede bakartzat hartzen. Euskal kultura eta kulturazko erlijio bat fede bihurtzen ditu. Eta orduan, kultura ezezik, fedea bera ere krisian jartzen ditu, fedea eta kultura nahasten bait ditu.

Humanismoaren ahotan esanahi jatorra du esaera horrek. Hau da, lurralde honetako gizakiak eta Herriak, euskaldun, euskal kulturadun denez, fedea behar du kultura hori finkatzeko. Bestalde, kulturarik gabeko gizonak eta Herriak ezin dezakete federik ukan, gizatasunaren eta herritasunaren sustraia, muina eta oinharria galdua dutelako, eta fedea adierazteko mintzabiderik ez dutelako. Euskaldun, kulturadun izateko fededun izan behar du euskaldunak; eta fededun izateko kulturadun izan behar du gizonak, eta uskal gizonak, euskal kulturadun izan behar du. Argi da-

goela uste dut, gizon guztiek behar duten giza fedeari ari naizela hemen, eta ez inolako fede konfesionalerik. Gizona da kulturaren nahiz fedearen sustraia, biena era berean ez baldin bada ere.

PLACER UGARTE, Félix

DESACRALIZACION Y CATEQUESIS

PPC, Madrid, 1973

Liburu sakona da, astiro irakurri behar diren horietakoa. GAUDIUM ET SPES-ek markatzen duen bidetik ibili behar du katekesiak gaur. Agiri handi hori baita Pastoraltzarako konstituzioa: "Eliza munduan ezur-mamitua", hori da: Eliza bizitzan...

LUMEN GENTIUM-ek erakusten duen bezala, Eliza barruan hitza jatorrasunez bizitzen asmatuaz gero, arrazoizko da kanpora ere eramatea GAUDIUM ET SPES-en bidetik.

- Bide berriak ongi asmatuak daude
- Gaurkoak dira
- Orain hasita gatekesiaren geroa zer izango den agertzen du
- Baditu akats batzu, gairitu beharrekoak
- "Salto" haundiegiak egiten dira; ez dagoz ongi neurtuak gaurko "multzo" pentsakerak eraman dezakeen abiadurarentzat.

Maria Cruz Nestores
Jesusen Lagundikoak